

Adjektibo erreferentzial ala erreferentzia-adjektibo? Euskaltzaindiaren gomendio baten hariari tiraka¹

Miren Azkarate
UPV / EHU

Laburpena

Berrogeita hamar urte bete dira 2018an Arantzazun euskararen batasunari hasiera eman zitzaionetik. Haugen-ek (1987) proposaturiko lau urratseko bidean azken urratsak terminologia (etengabe) eguneratzea eskatzen dio edozein hizkuntzari. Euskararen kasuan, etengabeko lantze horrek, besteak beste adjektibo erreferentzialen auziari erantzun egokia ematea eskatzen du, terminologian duten maiztasuna kontuan izanda. Izan ere euskarak, beste hizkuntza askok eta askok bezala, ez du berez (ia) adjektibo erreferentzialak sortzeko atzizkirik. Izen-elkarketa (*esku-lan*) eta 'izenlagun + izen' (*ibaiko garraio*) egiturak baliatu dira hizkuntza erromantzeetako 'izen + adj. erreferentzial' sintagmen ordain. Bide horretatik jotzea gomendatu zuen Euskaltzaindiak 1992an «Hitz elkartuen osaera eta idazkera» izeneko araua eman zuenean. Orduetik hona egindako bidea aztertzea du helburu artikuluko honek. 1990eko hamarkadan argitaraturiko lanek (Loinaz 1995, Zabala 1997) auzi honen gainean eginiko proposamenak abiapuntu harturik, Euskaltzaindiak berak *Euskaltzaindiaren Hiztegia* ontzean nola jokatu duen ikusiko dugu, zenbateraino ireki dien atea adjektibo erreferentzialeari. Gaurko corpusei ere behatu bat emango diegu 'izen + izen' / 'izen + adjektibo erreferentzial' egiturako adibideak erkatzeko. Azkenik, ondorio modura, zenbait jokabide berreizten saiatuko gara.

Hitz-gakoak: adjektibo erreferentzial, lexikologia, terminologia.

Abstract

In 2018 fifty years have gone by since the beginnings of standardised Basque. The last of the four stages set forward by Haugen (1987), *elaboration*, requires the (continual) updating of terminology in any language. With reference to Basque, this continual development also requires, amongst other things,

¹ Egileak ikerketarako jaso duen finantziazioa eskertzen du: EHU-US10/10; Jaurilaritza-IT665-13; Europar Komisia-EC FP7/SSH-2013-1AThEME (613465).

providing a suitable answer to the debate on relational adjectives taking into account their frequent use in terminology. In fact Basque, in common with numerous other languages, has hardly any suffixes of its own for creating relational adjectives. Compounding (*esku-lan* – ‘hand-work’; *handicrafts*) and ‘pre-noun adjective + noun’ (*ibaiko garraio* – ‘of the river + transport’; *river transport*) have been used to take the place of Romance languages ‘noun + relational adjective’ phrases. This was the solution recommended by Euskaltzaindia in its 1992 norm «Hitz elkartuen osaera eta idazkera» (‘forming and writing compound words’). This article’s purpose is to examine the approaches which have been taken since then. Taking work published about this issue in the 1990’s as its starting point (Loinaz 1995, Zabala 1997), we will see Euskaltzaindia’s own approach in *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (‘the Euskaltzaindia Dictionary’), and to what extent it has opened the way to relational adjectives. We will also examine current corpuses to compare examples of ‘noun + noun’ and ‘noun + relational adjective’ structures. Finally, in conclusion, we will attempt to differentiate between different approaches.

1. Sarrera

Berrogeita hamar urte bete dira 1968an Euskaltzaindiaren gidaritzapean euskarak batasun bideari ekin zionetik. Gaur dugun euskara estandarera iristeko Haugenek (1987) zehaztutako lau urratsetatik hiru eginxeak ditugu: gizarteak bere babesa eman dio batasunerako aukeratu zen ereduari (*selection of the norm*), eta eredu hori hedatua dugu hezkuntzan, hedabideetan, administrazioan eta, oro har, gizarteko edozein eremutan (*implementation*). Euskaltzaindiak ere egin du bere parte eta eredu horrek badu bere gramatika eta hiztegia, onomastika ere landu da, eta horrek guztiak osatzen du gaurko estandarraren kodea (*codification of the norm*). Laugarren urratsak, ordea, etengabeko lantzea eskatzen du (*elaboration*), edozein hizkuntzak baitu eguneratu beharra terminologia auziei edo estilo desberdinen ingurukoei erantzun egokia emateko.

Azken urrats honetan euskarak izango zuen zailtasunetako bat² aurreikusi zuen Ensunzak (1989) erdal adjektibo erreferentzialetako euskal ordainak aztergai hartu zituenean. Izan ere, beste hizkuntza askok bezala, euskarak ere ez du (ia) berezko izenordain erreferentzialik (-*tar* atzizkiak sorturikoak baino ez); eta, batez ere terminologian ‘izen + adjektibo erreferentzial’ egiturak duen maiztasuna ikusirik, nahitaezkoa zen gogoeta zein ordain baliatu dituen euskarak *trabajo manual*, *semana cultural* edo *literatura oral* esateko. Batez ere zientziaren alorreko terminologia aztertu ondoren, hiru bide seinatalu zituen Ensunzak (1989): izen-elkarketa (*argi-espektra*, *bero-ahalmen*, *elektroi-geruza*, *grabitazio-eremu*), ‘izenlagun + izen’ egitura (*alduneko po-*

² Arantzazuko txostenean bertan seinatalu zuen Mitxelenak (1968: 215) bestea: aurrikirik ez izatea. Baina artikulua honetan ez diogu auzi horri helduko.

tentzia, lurpeko kable, zenbakizko kontrol) eta mailegutza (*kimika organiko, kontrol automatiko, borroka sindikal*). Hala ere, inguruko hizkuntzetako terminoen egitura aztertu ondoren, ohartarazten gaitu askoz gertuago dagoela euskara ingelesetik gaztelania eta frantsesetik baino (hau da, hobeto egokitzten zaizkigu ingelesezko mendekotasunezko izen elkartuak).³

Hitz-elkarketa (eta ‘izenlagun + izen’ egitura) nabarmendu zituen Euskaltzaindiak «Hitz elkartuen osaera eta idazkera» izeneko arauan 1992an. Hitz-elkarketak, zehazki:

Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal «izen + adjektibo erreferentzial» egiturak ordezkatzeko: *esku-lan* (*trabajo manual / travail manuel*), *aho-literatura* (*literatura oral / littérature orale*), *ekonomi teoria* (*teoría económica / théorie économique*), etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen menpekoegi bihurtu nahi ez badugu. (Euskaltzaindia 1992: 730)

Hala ere, hitz elkartua ulergaitz gerta badaiteke, hobe ‘izenlagun + izen’ egiturara jotzea: *unibertsitateko ikasleak, elizbarrutiko museoa*. Hitz-elkarketaren (edo izenlagun + izen egituraren) alde egin zuen berriro 1995ean *-ARI/-ARIO* izeneko arauan eta *parlamentu(ko) talde, planeta-sistema* edo *unibertsitate(ko) aldizkari* hobetsi, ondoan izan dezaketean *-ariodun* adjektiboaren ondoan (*talde parlamentario, aldizkari unibertsitario...*).

Hitz horietatik ateratzen dugu ondorioa hobe dela adjektibo erreferentzialdun sintagmak saihestea; baina «ahal den guztietan» esateak berak adierazten du ezingo direla beti saihestu. Noiz bai eta noiz ez? Ba al dago zerbait gehiago mugatzerik «ahal den guztietan» hori?

Galdera horiei erantzuten saiatuko gara, lehenik, hurrengo orrialdeetan, nahiz badakigun beste batzuk ere ahalegindu direla argibide gehiago ematen lehen ere (Loinaz 1995, Zabala 1997, 2013). Ondoren, Euskaltzaindiak (1992) emandako gomendioak gure hiztegi, terminologia-banku eta corpusetan zer ibilbide egin duen aztertuko dugu. Hau da, lehian baldin baditugu, batetik, euskal eredia —*ekonomia teoria, gizarte-arazo* edo *hipoteka-kreditu*— eta, bestetik, inguruko erdaretakoa —*teoria ekonomiko, arazo sozial* edo *kreditu hipotekario*—, eta Euskaltzaindiak argi eta garbi euskal ereduaren aldeko aldarria egin badu, nolako erabilera dute eredu bateko eta besteko egiturek *Euskaltzaindiaren Hiztegian, Egungo Euskararen Hiztegian, Euskaltermen*, edo *Egungo Testuen Corpusean*? Azkenik, ondorio batzuk ateratzen saiatuko gara.

³ Alemanez ere hitz-elkarketa hobesten dute, eta ez ‘adjektibo erreferentzial + izen’ egitura, hizkera arruntean behintzat; hizkera jasoagoan, terminologian, bi egiturak aurki daitezke (Gunkel eta Zifonun, 2008: 286-287).

2. Erdal adjektibo erreferentzialak

Adjektiboen arteko sailkapen nagusia adjektibo kalifikatzaile / erreferentzial⁴ bereizketa dagokiona dela esan daiteke (beste askoren artean, Bosque 1993, Bosque eta Picallo 1996, Demonte 1999, Bosque eta Gutiérrez-Rexach 2009, RAE 2009, Zabala 1997, 2013, Artiagoitia 2002, Euskara Institutua EHU, *SEG*). Izenaren berezko ezaugarri bat adierazten dute lehen motakoek (kolorea, neurria, izaera, forma, kopurua...); adjektibo erreferentzialek ere kalifikatzen dute izena, esaten dute nolakoa den, baina ez berezko ezaugarriren bat oinarri hartuta, baizik kanpoko beste zerbaitekin erlazionatuz. Argi islatzen da hori hiztegiatiko definizioetan: *ekonomiko* ‘ekonomiari dagokiona’ (Euskaltzaindia 2012), *económico* ‘perteneciente o relativo a la economía’ (RAE 2001).

Oro har, izenetatik eratortzen dira adjektibo erreferentzialak, edo izen batekin lotzen dira.⁵ Ugariak dira inguruko hizkuntza erromantzeetan horrelako adjektiboak sortzen dituzten eratorpen-atzizkiak: gaztelaniaz *-al*, *-ar*, *-ivo-*, *-ico*, *-ano-*, *-ario* edo *-ero* izan daitezke ezagunenetakoak (emankorrenak ere bai ziurrenik), baina askoz gehiago ere jasotzen dituzte gramatikek (Rainer 1999, RAE 2009). Batzuetan, hala ere, urrun geratzen dira gaur gaztelaniaz erabiltzen den izena eta adjektibo erreferentzialaren oinarrikoa (latinetik askoz gertuago egon ohi dena): *madre* / *maternal*, *mes* / *mensual*, *hijo* / *filial*, *río* / *fluvial*, *niño* / *infantil*... Beste horrenbeste gertatzen da frantsesez (ikus, esaterako, Rodríguez Pedreira 2000) eta beste hainbat hizkuntza erromantzeetan zein anglo-germaniarretan (Bortolotto 2016); azken batean, latinetik mailatu / egokituak izaten baitira horiek guztiak. Badira oinarrian latinetik hizkuntza erromantzerara igaro ez den izena duten adjektibo erreferentzialak ere: *urbano* (< *urbs*), *rural* (< *rus*).

Adjektibo erreferentzialen ezaugarritzat hartu dira, besteak beste, graduatzailek edo konparazio atzizkirik ez hartzea; izen abstraktuen oinarri ez izatea, antonimorik ez izatea, polaritate-erlaziorik ez osatzea (**the decision is non-senatorial*) eta predikatu nominal gisa erabiltzen badira, kontrastea adierazteko erabiltzea: *arazo hau politikoa da*, eta ez beste mota batekoa, modifikatzen duten izenaren ondo-ondoan joan beharra (Levi 1978, Bosque 1993, Zabala 1997, Demonte 1999, Picallo 2002, Bosque eta Gutiérrez-Rexach 2009, RAE 2009, Bortolotto 2016). Ezaugarrien artean nabarmendu dute zenbait hizkuntzalarik adjektibo erreferentzialen aurrizkiak hartzeko

⁴ Edo erlazional, bietako deiturak aurkituko baititugu, nahiz gaztelaniaz edo frantsesez ‘adjetivo relacional’, ‘adjectif relationnel’ izan nagusi (baita ingelesez ere), ‘adjetivo de relación’ eta ‘adjectif de relation’ ere ondoan dituztela.

⁵ Adjektibo kalifikatzailetzat hartzen ditugun batzuk ere, izenetatik eratorriak izan ez arren, adjektibo erreferentzial sailkatzaile balioa dute: *consonante sorda*, *línea recta* (Bosque eta Gutiérrez-Rexach 2009).

erraztasuna ere: *anticonstitucional*, *prehistórico*, edo *antidemocrático*.⁶ Hala ere, kalifikatzaile / erreferentzial bereizketa ez da beti hain argi ikusten. Adjektibo bat izan daiteke bai kalifikatzaile eta bai erreferentzial (besteen artean, Levi 1978, Bosque 1993, Zabala 1997, Demonte 1999, Picallo 2002, RAE 2009, Bortolotto 2016): adibidez, *napoleónico* ‘Napoleoni dagokiona’ vs ‘oso handia’, *teatral* ‘teatroari dagokiona’ vs ‘enfatikoa’, *calore tropicale* ‘tropikokoa vs tropikoan egiten duen bezalako beroa’), *criminal lawyer* ‘kriminala, gaizkilea den abokatua vs legearen aurkako gertakariekin lan egiten duena’. Askotan modifikatzen duen izenak emango digu gakoa nola ulertu behar dugun adjektiboa, kalifikatzailetzat ala erreferentziazat.

Bi motatako adjektibo erreferentzial edo erlazionalak bereizi dituzte gai honetaz arduratu diren hizkuntzalariak bai gaztelaniaz eta bai gainerako hizkuntzetan ere (Bosque 1993, Bosque eta Picallo 1996, Zabala 1997, 2013; Demonte 1999;⁷ Rodriguez Pedreira 2000; Picallo 2002; Fábregas 2007, Bosque eta Gutiérrez-Rexach 2009, Bisetto 2010, Bortolotto 2016):⁸ ‘tematikoak edo argumentalak’ eta ‘sailkatzaileak’. Modifikatzen, kalifikatzen duten izenaren argumentu bati dagozkio ‘adjektibo erreferentzial tematiko’ak.⁹ ‘Agentea’ adierazten dute honako adibide hauetan: *invasión alemana de Italia*, *reacción hispana a los estereotipos*, *décision gubernamental*, *voyage présidentiel*. ‘Esperimentatzailea’, aldiz, beste hauek: *amour maternelle*, *gusto mexicano por el chile*. Eta ‘gaia, pazientea’ hurrengo hauek: *pesca ballenera*, *producción láctea*. Balio tematikoa izango dugu ‘jabego besterenezin’ motako harremana dagoenean adjektiboaren eta modifikatzen duen izenaren artean (‘osoa-zatia’ motako harremana) —*membrana celular*—; bai eta harremana magnitude baten eta horrek neurtzen duen objektuaren artekoa denean ere —*radio terrestre*— (Zabala 2013).

Adjektibo erreferentzial sailkatzaileek, aldiz, modifikatzen duten izenak beste entitate batekin zer erlazio duen adierazten dute. Modu askotako erlazioa adieraz dezakete; besteak beste, eta erlazioen zerrenda ez dela agortzen jakinik, lokatiboa (bidea), *acrobacias aéreas*; lokatiboa (iturburua), *calor solar*; lokatiboa (helburua), *viaje estelar*; lokatiboa (lekua), *poblado lacustre*,

⁶ Lan honetan ez gara arduratuko aurrizkidun adjektibo erreferentziazaleez, bestelako auzia baitakarte horrelako egiturek: erdal aurrizkiak euskaraz nola eman, alegia.

⁷ Berez hiru motatako adjektibo erreferentzialak bereizten ditu, baina, oro har, bi kategoria nagusi horietara bil ditzakegu (Demonte 1999: 162).

⁸ Adjektibo erreferentzialen argumentu-izaera nabarmendu zuten Kaynek (1981) ingeleserako, Giorgi eta Longobardik (1981) italiararako; Bosquek (1993) eta Bosque eta Picallok (1996) gaztelaniarako (Fábregas 2007). Bereizketa hori jarraitu dute gero hizkuntzalariak.

⁹ Aldeak daude, hala ere, hizkuntza batetik bestera, adjektibo erreferentzialen balio tematikoaz aditz-izen batekin ageri direnean. Ingelesak, alemanak eta frantsesak ez dute berdinean jokatzen: alemanez nekez izango dute balio tematikoa adjektibo erreferentziazalek, eta izatekotan, subjektuari loturiko interpretazioa izango dute, ez objektuari lotua. Ingelesez edo frantsesez, aldiz, ohikoak dira, agian latinetik hartutako eredu delako (Gunkel eta Zifonun 2008).

merienda campestre; zergatia, kausa, *discriminación racial*, *infección viral*; onuraduna, norentzakoa *literatura infantil*; onuradura *crema dental*; instrumental *curación manual*, *testigo ocular*; iturburua *residuos industriales*; helburua *material quirúrgico*; jabetza *avión ministerial* (Bosque eta Picallo 1996, Demonte 1999). Mota honetako adjektiboak dira ‘-i dagokiona’ parafasiari ongien egokitzen zaizkionak.

Nolanahi ere, adjektibo erreferentzial bera izan daiteke mota batekoa edo bestekoa: *la estructura molecular* (argumentu balioa) / *la estructura molecular del acero* (sailkatzailea, *del acero* baita barne-argumentua).

Adjektibo erreferentzial bat baino gehiago ager daiteke izen bat modifikatzen:¹⁰ *[[producción atómica] industrial]*, *[[novela histórica] decimonónica]*, *[[patrimonio cultural] autóctono] valenciano]*; azken adjektiboak aurreko multzo osoa modifikatzen du (Demonte 1999, Bosque eta Gutiérrez-Rexach 2009).

Puntu honetan aipatu ditugun autoreen lanak noizkoak diren ikustea baino ez dago jabetzeko zenbat ikertu den adjektibo erreferentzialen auziaz Euskaltzaindiak bere araua eman zuenetik hona.

3. Erdal adjektibo erreferentziadun sintagmen euskal ordainak

Aurreko puntuan eman ditugun adibideetako *mexicano*, *chileno*, *hispana*, edo *francesa* adjektiboek erakusten dute adjektibo erreferentzialtzat hartu ditzutela hizkuntzalariek ‘jentilizioak’, ‘jatorri adjektiboak’: zerbait edo norbait nongoa den adierazten dutenak nahiz pertsona-izena oinarri duten *gal-dosiana*, *borgiana* modukoak. Balio horiexek dira, hain zuzen ere, euskaraz *-(t)ar* atzizkiaren bidez ematen ditugunak (Zabala 1997, 2013; Artiagoitia 2002). Hau da, *hegazti gautar*, *alderdi eskuindar*, *bertsolari kaletar*, *testuliburu ingeles* sintagmetako adjektiboak erreferentzialak dira (Artiagoitiak ‘erlaziozko’ edo ‘erreferentziadun’ deitzen dienak).¹¹ Beraz, ezin esan daiteke euskarak ez duela inolako adjektibo erreferentzialik. Besterik da zein mota-tako adjektibo erreferentzial diren: tematikoak ala sailkatzaileak. Batzuetan balio tematikoa dute inguruko hizkuntzetan; alegia, subjektu agenteei dagozkien funtzio semantikoak hartzen dituzte: *la poesía femenina*, *les invasions romanes*, *l’atterratge americà*, *l’actitud europea davant la crisi* (Demonte

¹⁰ Interesa duenak Bortolottoren lanean (2016) aurkituko du hizkuntza erromantzeetan zein hurrenkeratan kokatzen diren adjektibo erlazionalak, bat baino gehiago daudenean sintagma berean: ordena markatugabea (edo inkestatu gehienek hobetsia) ‘Gaia > Instrumentua > Agentea > Lekua > Denbora’ da. Halaber, Bosque eta Picallo (1996) eta Demonte (1999).

¹¹ Hauek ere kalifikatzaile bilaka daitezke eta graduatzaileak onartu (Zabala 1997): *Miren amaia baino eskuindarra da*.

1999, Rodriguez Pedreira 2000, Picallo 2002). Baina honetan ez dago adostasunik hizkuntzalarien artean (Bortolotto 2016: 99). Gurean ere, Zabalen (1997, 2013) iritziz *-(t)ar* atzizkiarekin sortzen diren adjektiboek sailkapen-harremana izaten dute izenarekin, ez argumentu-harremana: *animalia itsastarrak* / **lege newtondarrak* (Newton legeen egilea baita). Salbuespen dira, hala ere, oinarrian leku-izenak dituztenak. Artiagoitiak ere (2002) balio tematikoa ematen dio *errusiar* adjektiboari *Txetxeniaren aurkako eraso errusiarra* sintagman.

Oro har, ordea, egia da euskarak ez duela berezko baliabiderik izenondo erreferentzialik sortzeko. Ensunzaren (1989) eta Euskaltzaindiaren (1992) ondotik, Loinaz (1995) eta Zabala (1997, 2013) arduratu dira, gure artean, erdal adjektibo erreferentziaz, eta baita saiatu ere zehazten noiz jotzen dugun erdal adjektibo erreferentzialak mailegatzea.

Baina aurrera egin aurretik, kontuan hartzekoa da adjektibo erreferentzialak dituzten hizkuntzetan ere aipatu direla, batetik, ‘izen + adjektibo erreferentzial’ / ‘izen + PP’ egituren arteko harreman semantiko eta formala (Rodriguez Pedreira 2000, Fàbregas 2007): *processus carieux* / *de la carie*. Eta, bestetik ‘izen + adjektibo erreferentzial’ / izen elkartu bikoteen artekoa: *industry output* / *industrial output*, *cell structure* / *cellular structure*, *senate leadership* / *senatorial leadership*, *autumn rains* / *autumnal rains* (Levi 1973, 1978;¹² Demonte 1999, Fàbregas 2007, Gunkel eta Zifonun 2008, Bortolotto 2016).¹³ Horrexegatik datoz bat mendekotasunezko elkarte batean bi izenen artean egon daitezkeen harreman semantikoak eta adjektibo erreferentzial sailkatzaileen artean egon daitezkeenak. Areago, Artiagoitiak (2002: 444) defendatu du *[-(t)ar* atzizkidun hitza + izen] egiturak ere funtsean hitz elkartuak direla; beraz, *itsas molusku* eta *itsastar molusku*, biak lirateke izen elkartuak.

Komeni da aurreko puntuan adjektibo erreferentziaz esanak kontuan hartzea, Loinaz (1995) eta Zabalen (1997, 2013) azalpenak hobeto ulertze-

¹² ‘Complex nominals’ terminoa darabil Levik (1978) hizkuntza germaniarretan, eta bereziki ingelesez, izen kategoriako burua eta modifikatzailetzat izena edo adjektibo erreferentziala duten egiturak izendatzeko (adibidez, *autumn* / *autumnal rains*). Nolanahi ere ez gara sartuko [izen + adjektibo erreferentzial] egiturak sintagma diren ala, hein handi batean izen elkartu. Aztermolde baten eta bestearen aldeko proposamenen berri aurki daiteke Bortolottoren lanean (2016).

¹³ Ballyk berak ([1944] 1965: 97) zioen adjektibo erlazioaletan funtzio-aldaketa bat gertatzen zela, halako adjektiboek «transpose des substantifs sans rien changer à leur valeur de substantifs»; hau da, atzizki baten bidez adjektibo bihurturiko izenak baino ez direla. Bally hartzen da ‘adjektibo erreferentzial’ kategoria proposatu zuen lehen hizkuntzalaritzat, baina Bortolotto (2016: 51) dio dagoeneko Frei-k (1929) deskribatu zuela adjektibo mota hau bere frantses gramatikan; eta Rainer-ek (2013) dioenez atzerago ere joan beharko genukeela, Dornseiff-en (1921) lanera.

ko.¹⁴ Adjektibo tematikoak (bai subjektuari bai osagarriari dagozkionak) izen elkartuen bidez, nekez mailegatuko ditugu: *elektroi-garraio* (vs. *mikroskopio elektronikoa*, sailkatzailea), *birus-infekzio*, *zelula-apurketa*, *gorputz-hezkuntza*. Edo ‘-ren izenlaguna + izen’ egituraz balia gaitzke, *itsasoaren hondoa*, batez ere mugatzaileak balio generikorik izan ez dezakeenena: *presidentearen bidaia* / *erabakia*, *lurraren erradioa*. Jabegoa adierazten duten adjektibo erreferentzialak ere oso ondo eman daitezke izen elkartuen bidez: *zelula-min-tza*. Adjektibo erreferentzial sailkatzaileen kasuan, balio erreferentziala argia denean, ostera, hitz-elkarketarako (edo ‘izenlaguna + izen’ egiturarako) joera nagusituko da eta modu askotako erlazioak egongo dira bi osagaien artean (Azkarate eta Perez Gaztelu 2014), erdaraz izenaren eta adjektibo erreferentzialaren artean bezalaxe: *hortz-hari* / *hortzetako hari*, *haur-literatura* (helburua), *giza hezur* (zatia), *eguzki-energia* (iturburua), *eguzki-panel* (baliabidea), *azukre kanabera* (ondorioa), *elektroi-sorta* (edukia), *itsas molusku* / *itsastar molusku* (lekua)...

Erdal adjektiboa mailegatzeraz joko dugu adjektibo kalifikatzaile bihurtu direnean (*sagardo natural*, *perpau gramatikal*) edo balio erreferentziala lausotzen den heinean: *pertsona fisiko*, *lurralde historiko* (ez baitira ‘fisikari dagokion pertsona’ edo ‘historiari dagokion lurraldea’); bide beretik *erreaktore nuklear* edo *markagailu elektronikoa*. Bi adjektibo edo gehiago ditugunean ere errazago joko dugu maileguetara: *fisiko-kimiko*, *sozio-laboral*, *zuzenbide zibil*, *penal*, *eta konstituzional*. Hala ere hor ditugu *nazioarteko zuzenbide publikoa* edo *haur eta gazte literatura*. Honen harira, Zabalak (1997: 555) hauxe azpimarratzen du: «zenbaitetan euskaraz ezinbestean konponketa desberdinak behar dituzten izenondoak agertuko zaizkigu koordinaturik. Orduan, izena errepikatze beharrean egongo gara: *restos humanos o volcánicos? Giza aztarnak ala aztarna bolkanikoak?*». Adibide honek erakusten du hiztegi eta corpusen azterketak berretsiko duen zerbait: alegia, ez dugula mailegatzen oinarrian euskal izen argia izan dezakeenik, hemen *humano* / *giza* bikotean gertatzen den bezala.

Kultur erro baten gainean eraikitako adjektibo erreferentzialak ere mailegatu egiten ditugu: *biotiko*, *distal*, *parietal*, *okzipital*, *temporal*.

Nazioarteko erabilerak ere badu eragina: nazioartean bietako egiturak dabilzanean, ‘izen + adjektibo erreferentzial’ eta izen elkartua, euskarak errazago joko du berea duen egiturara: *cloruro sódico* / *sodium chloride* / *sodio kloruro*; *sulfato cálcico* / *calcium sulfate* / *kaltzio sulfato*. Inguruko hizkuntzetan adjektibo erreferentziala dugunean, ostera, euskaraz ere mailegura joko dugu: *anhidrido sulfuriko*, *anhidrido sulfuroso*.

¹⁴ Labur jasoko ditugu hemen, batez ere Zabalak (1997) esanak. Azalpen luzeagoak aurkituko ditu interesa duenak jatorrizko lanetan.

Nolanahi ere, hirurek —Eusnzak, Loinazek eta Zabalak— azpimarratzen dute ehunka eta ehunka adjektibo erreferentzialen beharra dugula, terminologiaren alorrean batik bat.

4. Hiztegi eta corpusetako datuak

4.1. Euskal autoreek esanak aztertu ondoren, eman diezaiozun patxadazko begiratu bat azken urteetan landu ditugun baliabideei: *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* lehenik, *Egungo Euskararen Hiztegiari* eta ondoren Euskalterm terminologia datu-baseari. Eta erka ditzagun hiztegi eta datu-base horietako datuak corpusetako erabilerekin. Bistan da ezinezkoa izango zai-gula adjektibo erreferentzial guztiak, ezta gehienak ere, aztertzea. Baina saia gaitezen, behintzat, zenbait joera ikusten.

Hasteko, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* *-iko*, *-al*, *-ar* edo *-ario* amaierako adjektibo erreferentzial asko jaso ditu, maileguz hartuak: *akustiko*, *analitiko*, *arkitektoniko*, *autonomiko*, *biologiko*, *bolkaniko*, *ekonomiko*, *elektroniko*, *energetiko*, *filosofiko*, *fisiko*, *geografiko*, *historiko*, *informatiko*, *ioniko*, *juridikoa*, *kimiko*, *klasiko*, *linguistikoa*, *magnetiko*, *matematiko*, *pedagogiko*, *politikoa*, *psikologiko*, *zientifikoa*; *erreal* (errega-erreginei dagokiena), *industrial*, *judizial*, *munizipal*, *mundial*, *normal*, *sozial*, *tropikal*, *unibertsal*; *eskolar*, *molekular*, *nuklear*, *zelular*; *komunitario*, *parlamentario*, edo *unibertsitario*.

Baina ez beste asko eta asko: *astral*, *floral*, *flubial*, *gubernamental*, *manua*, *mensual* (eta aldirokotasuna adierazten duten gainerakoak), *ministerial*, *polizial*, *presidentzial*, *merkantil*, *lunar*, *solar*, *hipotekario*, *ozeanografiko*, *diozesano*, *alimentario*, *asanbleario*, *estatutario*, *portuario*, *terrestre*.

Lehen konstatazio honetatik, zer jaso den eta zer ez, ondorio bat atera dezakegu: ez da arazorik sortzen adjektiboaren oinarri den erdal izena maileguz hartu dugunean (*akustika*, *fisika*, *kimika*, *biologia*, *filosofia*, *geografia*), nahiz izenaren eta adjektiboaren arteko harremana ez izan zuzena (*arkitektura* > *arkitektoniko*). Badira, hala ere, oinarrian mailegua izan arren, jaso ez diren adjektiboak: *hipotekario*, *polizial*, *estatutario*... Baina oinarrian dagoen erdal izenak euskal ordain argia badu, ez dugu adjektibo erreferentzial aurkituko (*mensual*, *floral*, *diozesano*, *lunar*, *solar*...). Ez *Euskaltzaindiaren Hiztegiari*, ez Euskaltermen, ez *Egungo Euskararen Hiztegiari* eta ez, oro har, corpusetan ere aurkituko dugu horrelako adjektiborik. Euskal izena mugatzaile duten izen elkartuetara edo izenlagun egiturara jotzen du euskarak, Loinazek (1995) eta Zabalak (1997) esan bezala: *eguzki-zelula*, *lore-polimorfismo*, *urteko erretoa*, *urteko ekitaldi*, *hileroko aitortpen*, *ministro-agindu*, *portu-agente*, *ibai-bidaia*, *lurraren atmosfera*...

Euskal izen egokia aurkitzea zaila denean ere, batzuetan izenondoa de-segokia iruditu eta ordezeko izen bat aurkitzeko ahalegina egiten da. Nabar-

mena da *rural* adjektiboaren kasua, ordain bat baino gehiago dituen (Zabala 1997): *landa-* (*ingurune, lan*), *baserri-* (*giro*), *nekazaritza-* (*produktzio*), *herri-* (*kirol*). Edo *electoral* adjektiboaren ordain Euskaltermen ageri diren *hauteskunde-mahai, hauteskunde-kanpaina, hautesle-elkarte, hautesle-errolda*, eta abar.

Bestalde, *parlamentario* edo *unibertsitario* adjektiboak hiztegian sartu izanak erakusten du erabiltzen direla eta, beraz, ez dela gututz jarraitu *-ARI/-ARIO* arauan emandako arau-gomendioa. Beste horrenbeste esan liteke jaso diren gainerakoez ere. Dirudienez *gai politiko* sintagmak badu *politika-gai* izenak adinako erabilera edo handiagoa; *sistema filosofiko* sintagmak, lehia-kide duen *filosofia-sistema* izenak adinakoa edo handiagoa, eta abar.

Baina beharrezkoa da adjektibo horien adierari / adierei begiratzea ere. Izan ere, bistan da Euskaltzaindiak bere Hiztegian sarrera eman dien adjektiboetako bat baino gehiago kalifikatzaileztat hartzen ditugula edo, behintzat, erreferentzia-balioa oso lausoa dutela. Horien artean ditugu *klasiko, normal*, edo *mundial* ‘sekulakoa, oso ona’. Gainerakoen artean, sarrera bakoitzeko adierak izan behar dira kontuan. Badira adiera bakarrekoak, hala nola *geografiko, biologiko, matematiko, psikologiko, molekular, zelular, hormonal, tropikal* edo *parlamentario*; ‘-i dagokiona’ ematen dute aditzera adjektibo horiek (*geografiari / biologiarri / matematikari / molekulari / zelulari / hormonari / tropikoari / parlamentuari... dagokiona*) eta, beraz, ez legoke inolako arazorik adjektibo erreferentzialaren gainetik izen elkartua lehenesteko. Hain zuzen ere, bide hori erakusten du *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* sarrera horietako bakoitzean adibideak ematean, definitzaileztat izen elkartua aukeratzen baitu: *izen geografikoak*: geografia-izenak; *talde parlamentarioa*: parlamentu(ko) taldea; *ikerketak biologikoak*: biologia-ikerketak. Ez beti, ordea: esaterako, *egitura molekular* adibideak ez du ondoan ‘molekula egitura’ definitzailea, ez eta *zatiketa zelular* sintagmak ‘zelula zatiketa’, *aldaketa hormonalek* ‘hormona aldaketa’, *eritasun tropikal, landare tropikal* edo *gau tropikalek* ‘tropiko(ko) eritasun / landare / gau’ ere. Edo ‘ioiena, ioiei dagokiena’ adierak ez dakar gero ‘ioi(en) erradiazioa’ definitzailea *erradiazio ionikoa* adibidearentzat. Edo *munizipal* ‘udalarena, udalari dagokiona’ adierakoa izan arren, *hauteskunde autonomiko eta munizipal* *parte hartzeko* adibidea baino eman ez zaiona. Badirudi, beraz, Euskaltzaindia bera dela, *Hiztegia* garatu ahala, berrikiago onartutako sarretan, izen elkartuaren aldeko joera lausotzen ari dena, adjektibo erreferentzialaren mesedetan.

Beste adjektibo askok, ordea, adiera bat baino gehiago dute. Esaterako, *Politiko* 1. ‘politikarena, politikari dagokiona’. *Arazo politikoak*: politikarazkoak. *Giro politikoak*: politika-giroa. *Alderdi politikoak*. *Sistema politikoak*. 2. ‘Estatuari edo estatuen arteko harremanei dagokiena’ *Berezko mugak eta muga politikoak*. *Geografia politikoak*. Edo *Nuklear* 1. ‘nukleoarena,

nukleoari dagokiona' *erreakzio nuklearra*. 2. 'Energiaz mintzatuz, erreakzio nuklear batean sortzen dena', *energia nuklearra*. 3. 'Energia nuklearra erabiltzen duena', *arma nuklear*. *Elektroniko* 1. 'elektroiari dagokiona'. *Jario elektronikoa*: elektroi-jarioa.¹⁵ 2. 'elektronikarena, elektronikari dagokiona'. *Ingeniaritza elektronikoa*. 3. 'Tresnez edo gailuez mintzatuz, elektronikaz baliatzen dena'. *Mikroskopia elektronikoa*. Bide beretik, *Ekonomiko* 'ekonomiari dagokiona' *egoera ekonomikoa*: ekonomiaren egoera; *arazo ekonomikoa*: ekonomia arazoak, 'gutxi kostatzen dena' *usterik ekonomikoa*. *Historiko* 'historiari dagokiona' *denbora historikoak*, *eleberri historiko mardula*, 'zerbaiten historian geroko gordea izatea merezi duena' *garaipen historikoa*. Hauetan guztietan, '-i dagokiona' balioan izango dugu hitz elkartua lehiari; erreferentzia balio horretatik urruntzen garen heinean, mailegura jotzen dugu. Graduatzailerak hartzeak ere erakusten digu adjektibo kalifikatzaile bihurtu direla adiera batzuetan (*ekonomikoa*).

Bestalde, Zabalak (1997) seinalatu bezala, *elektroniko* adjektiboaren oinarrian bi izen daude: *elektroi* eta *elektronika*. Lehen adieran bultzatzen du Euskaltzaindiak izen elkartu; 'elektronika' adieran, aldiz, argi dago erabilera nondik nora doan gaur euskaraz (hala erakusten dute, esaterako, *elektroniko* adjektiboak *Egungo Testuen Corpusean* dituen ia 16.000 agerraldiek, nahiz horietatik bakan batzuk 'elektroi' adierari dagozkion). Dena den, berez, ez litzateke ezinezkoa izango 'elektronikari dagokiona' adieran *elektronika ingeniariaritza* egitea; areago, hori da esperoko genukeena.

4.2. *Egungo Euskararen Hiztegiak*, aldiz, *Ereduzko Prosa Gaur* corpora oinarri baitu, jasotzen ditu Euskaltzaindiak (oraindik) sartu gabeak dituen *hipotekario*, *polizial* edo *ozeanografiko*, esate baterako. Baina, horrekin batera, adjektibo erreferentzialdun sintagmen ordain diren izen elkartuen adibideak ere ematen ditu, guztiak, jakina, iturri duen corpusetik hartuak: *ekonomia gizarte*, *ekonomia analista*, *ekonomia eragozpen*, *ekonomia eskualde*; *politika gai*, *politika gizon*, *politika urte*, *politika ikerlari*, *politika mendekotasun*, *politika askapen*; *filosofia-kontu*, *filosofia-ikuspegi*, *filosofia jarrera*, *filosofia-sistema*, *filosofia eztabaida*, *filosofia arazo*, *filosofia tesi*; *hipoteka-mailegu*, *hipoteka erregistro*, *hipoteka indize*, *hipoteka kontratu*; *industria-garapen* (adjektibo tematikoaren ordain), *industria kapitalismo*, *industria gizarte*, *industria eremu*, *industria kontzentrazio*, *industria eraldaketa*, *industria ekoizpen* (azken hiru hauek ere adjektibo tematikoen ordainak), *industria inbertsio*, *industria esportazio*, *industria patente*; *polizia lan*, *polizia txosten*, *polizia eleberri*, *polizia zerbitzu*, *Polizia Departamendu*, *polizia prefektura*, *polizia arazo*, *polizia furgoi*; *matematika modelo*, *matematika notazio*, *matematika tratatu*, *matematika liburu*, *matematika hiztegi*, *matematika*

¹⁵ Ohart gaitzen, bidenabar, balio tematikoa duten *zatiketa zelular*, *egitura molekular*, *erreakzio nuklear*, *aldaketa hormonal* eta *jario elektronikoa* eman dituela Euskaltzaindiak bere *Hiztegian*, baita jabeagoa adierako *mintz zelular* ere, ondoan 'zelula-mintz' eman gabe.

saio (adibide hauek direla eta, inguruko erdaretan ere jakintzagaien kasuan ‘de + izen’ egiturara jotzen dute: *texto de filosofía, libro de matemáticas, exámen de física* eta abar). Ehunka horrelako aurkituko ditugu *Egungo Euskararen Hiztegian*.

4.3. Egia da bi adjektibotik gora ditugunean, azkenak aurreko multzo osoa modifikatzen duela onarturik, errazago dela adjektibo erreferentzialak mailegatzea: *Arroka magmatiko bolkaniko, harri bolkaniko piroklastikoak*. Baina *eguzki-zentral orbital, eguzki-zentral termoelektriko*, lehen ‘central solar’ multzoaren ordeztu izen elkartua emanaz. Baita *eguzki-zentral eoliko* ere gaztelaniazko ‘central eólico-solar’ sintagmaren ordain (Euskalterm), edo *eguzkiaren araberako eskala kronologiko* ‘escala cronológica solar’. Edota ingelezko *Electronic field production* sintagmaren ordain, *landa-ekoizpen elektronikoko (Egungo Testuen Corpua)*. Edo *Egungo Euskararen Hiztegi*ko *politika-, gizarte- eta kultur mailako aurrerapena, literatur edo filosofia testuak* edo *politika-mailako gizarte-zerbitzu sekular*. Ensunzak (1989: 587) dioen bezala, «hizkuntzak eskaintzen dizkigun baliabide lexikogenesikoez gain, bestelako erreferentzia (...) zientifikoak, teknikoak, kulturalak azken finean beharko ditugu (...) soluzio egokiak eman ahal izateko». Erdal adjektibo koordinatuen ordain ere izan daiteke izen elkartua: *Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak, gizarte eta ekonomia dimentsio* (EEH).

4.4. Orain arte ikusi ditugun aukera-bitasunek *Egungo Testuen Corpusean* (ETC) zer ibilbide duten aztertzerakoan, komeni da erdal adjektibo tematikoen eta sailkatzaileen arteko bereizketa gogoan izatea. Eta Zaballak (2013) dioena, nekez mailegatuko ditugula erdal adjektibo tematikoak. Badirudi ETCeko datuek besterik erakusten dutela. Izan ere, *elektroi fluxu, elektroi banaketa, elektroi garraiatzaile, elektroi ekarpen, elektroi higidura* izen elkartuen ondoan, hori ditugu (beti ere ‘elektroi oinarri dela) *antolaketa elektronikoko, polarizazio elektronikoko* (ez dago bestelako egiturarik), *higidura elektronikoko, banaketa elektronikoko, ekarpen elektronikoko...* Aurreko 4.3. puntuan ikusitakoaren arabera ez legoke debekurik *ekarpen elektronikoko eta ioniko* sintagmaren ordeztu, *ioi eta elektroi ekarpen* egiteko. Balio tematikoa du *molekular* adjektiboak sintagma hauetan ere; *aldaketa molekular, egitura molekular, talka molekular, abiadura molekular, elkarrekin molekular, moldaera molekular, klonazio molekular...* Horien ondoan badira, agerraldi gehiago edo gutxiagorekin, *molekula aldaketa, molekula egitura, molekula eraketa* edo *molekula klonazio* ere.

Balio sailkatzailea dutenean ere, batzuetan izen elkartua dugu corpusean (*elektroi dentsitate, elektroi azpigeruza, elektroi energia, elektroi nukleo* (3 agerraldi), *elektroi orbita, elektroi uhin*), beste batzuetan mailegua *orbita elektronikoko, nukleo elektronikoko* (3 agerraldi), *energia elektronikoko* (forma lehiakidea baino ugariagoa). Berdin *pisu molekular / molekula pisu, sistema molekular / molekula sistema, masa molekular / molekula masa* baina gure

ustez ondoan izen elkartua erraz asko izan zezaketen *bolumen molekular*, *diametro molekular*, *organismo molekular*, eta ‘molekularena, molekulari dagokiona’ adieratik urruntzen direlako agian, *parametro molekular*, *seinale molekular*, *oinarri molekular* (baina izen elkartuko bi osagaien arteko askotariko interpretazioak kontuan hartuta, *molekula-oinarri* edo *molekula parametro* ere onargarri eta erabilgarri izan daitezke).

Beste bikote batzuek ETCn duten ordezkartzari begiratu azkar bat emanda ondorioztatuko dugu izen elkarketaren ondoan maileguzko egitura ere badabilela, nahiz gehienetan ‘izen + izen’ egitura nagusitzen den: *industria politika* (248 agerraldi) / *politika industrial* (48); *gizarte gai* (2.698) / *gai sozial* (519), baina *gizarte arazo* (599) / *arazo sozial* (568); *hipoteka mailegu* (303) / *mailegu hipotekario* (28); *hizkuntz(a) atlas* (214) / *atlas linguistiko* (24); *hizkuntza arazo* (148) / *arazo linguistiko* (34); *planeta sistema* (98) / *sistema planetario* (11); *talde parlamentario* (1.081) / *parlamentu(ko) talde* (274, behin baino gehiagotan parlamentu jakin bat seinalatzen duena, *Euro-pako Parlamentuko talde*; ez dira, beraz, guztiz parekoak).

5. Ondorioak

Adjektibo erreferentziazalez esanak eta *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ko, *Egungo Euskararen Hiztegi*ko, *Euskalterm* datu-baseko edo *Egungo Tes-tuen Corpuseko* erabilerak alderatu ondoren, badirudi zenbait ondorio atera daitezkeela. Lehenik eta behin, azken hogeita bost urte hauetako terminologia-lantze (elaborazio) ahaleginek ehunka eta ehunka adjektibo erreferentzial mailegatzea ekarri dute. Horretan, inguruko hizkuntzen bide beretik goazela esan daiteke. Mitxelenak (1968) zioen bezala, hiztegian ere hartzaile eta zordun ageri gara.

Bestalde, Euskaltzaindiaren arauko «ahal den guztian» esamoldea dela eta, argi geratu da, forma hutsaz harago, nahitaezkoa dela egiazko erreferentzia balioa izatea, ‘(oinarrian dagoen izena)rena, izen horri dagokiona’, alegia. Balio hori galtzen den heinean, askotan, ez dago mailegua beste biderik. Adjektiboak oinarritzko erreferentzia balioari eusten dionean, hiztegi eta corpusetako erabilerak aztertzean ikusi bezala, izen-elkarketa erabili ahal izanik ere, behin baino gehiagotan jo dugu adjektibo erreferentziala mailegatzerara. Euskaltzaindiak berak ere izan du horrelako lerratze bat *Hiztegia* garatuz joan ahala (hala dirudi, behintzat). Beraz, ez goaz 1992ko gomendioko «ahal den guztian» horren bidetik. Diogunaren erakusle modura, artikulua honetan ‘adjektibo erreferentzial’ terminoa baliatu dugu, horixe da-eta Euskaltzaindiaren arauan ageri dena. Baina, gomendioak berak dioena aplikatuz, ‘erreferentzia-adjektibo’ behar genuke, *Sareko Euskal Gramatikak* erabili duena, alegia. Loinazek (1995) nabarmendu bezala, *ekonomia-teoria* aldarrikatzen zuen arau berak bultzatu zuen *izenondo erreferentzial*.

Hirugarrenik, adjektibo erreferentzialen arteko bereizketari dagokionez, datuek erakusten dute izen elkartua ala adjektibo erreferentzialdun sintagma hautatzean ez dugula kontuan hartzen balio tematikoa ala sailkatzailea duen adjektiboa. Horietako adibide asko zientzia mundukoak direnez, Zaballak (2013) eskatzen duenaren harira, aztertu egin beharko litzateke terminologia-normalizazio ekimenik behar den *erradio nuklear* eta *apurketa nuklear* modukoak gaitzesteko nahiz *zelula-mintz* eta kidekoetan egitura elkartuaren alde egiteko.

Azkenik, nahiz hau izango litzatekeen ondorio nagusia, argi geratu dela uste dugu zein den benetan faktore erabakigarria izen elkartuaren edo 'izenlagun + izen' egituren alde egin eta adjektibo erreferentziala baztertzeko: oinarrian dagoen izena mailegagarria den ala ez. Erdal forma nabarmena ikusten dugunean, *fluvial*, *terrestre*, *marítimo*, *solar*, *lunar*, *semanal*, *gubernamental*, *celestial*, eta abar baztertu eta *ibai*, *lur*, *itsas*, *eguzki*, *ilargi*, *aste*, *gobernu* edo *zeru* izango dituen egituraren batez ordezkaturako ditugu dagozkion erdal sintagmak; hiztegi eta corpusetako datuak begiratu baino ez dago hala dela baieztatzen. Zuzenean latinetik etorritako adjektiboa izanik, euskaraz horretarako izenik ez dugunean ere saiateren gara euskal izenean oinarritutako ordezkak aurkitzen, *rural* adjektiboaren kasuan ikusi bezala (eta hein handi batean berdin egiten dugu *urbano* saihesteko ere).

6. Erreferentziak

- Artiagoitia, X. (2002): «-(t)ar atzizkidun hitzen jokabide sintaktikoaren inguruan», *Fontes Linguae Vasconum* 91, 443-462.
- Azkarate, M. eta Perez Gaztelu, E. (2014): *Hitz-Elkarketa/2*. Bilbo: Euskaltzaindia. [<https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/hiztegi-digitalizatuak/hitz-elkarketa?id=4415>]
- Bally, Ch. (1965): *Linguistique generale et linguistique française*. Berne: Éditions Francke.
- Bisetto, A. (2010): «Relational adjectives cross-linguistically», *Lingue e linguaggio* 9 (1), 65-85.
- Bortolotto, L. (2016): *The syntax of Relational Adjectives in Romance: a Cartographic Approach*, doktore-tesia, Università Ca'Foscari.
- Bosque, I. (1993): «Sobre las diferencias entre los adjetivos relacionales y los calificativos», *Revista Argentina de Lingüística* 9, 9-48.
- Bosque, I. eta Picallo, C. (1996): «Postnominal adjectives in Spanish DPs», *Journal of Linguistics* 32, 349-385.
- Bosque, I. eta Gutiérrez-Rexach, J. (2009): *Fundamentos de Sintaxis Formal*, Madrid, ediciones AKAL.
- Demonte, V. (1999): «El adjetivo: clases y usos. La posición del adjetivo en el sintagma nominal», in Real Academia Española (arg.), *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Madrid, Espasa, 129-215.

- Ensunza, M. (1989): «Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak», *Euskera* 34, 2, 577-596.
- Euskaltzaindia (1992): «Hitz elkartuen osaera eta idazkera», *Euskera* 37, 2, 729-736 (www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0025.pdf)
- (2012): *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, Bilbo, Euskaltzaindia
- Euskara Institutua, EHU «Adjektibo-motak» *Sareko Euskal Gramatika (SEG)* [<http://www.ehu.es/seg/morf/5/7/2>] ISBN: 978-84-693-9891-3.
- Fàbregas, A. (2007): «The internal syntactic structure of relational adjectives», *Probus* 19 (1), 1-36 DOI: 10.1515/PROBUS.2007.001
- Gunkel, L. eta Zifonun G. (2008): «Constraints on relational-adjective noun construction: a comparative view on English, German and French», *Zeitschrift für Anglistik und Amerikanistik* 56.3, 283-302 [<https://doi.org/10.1515/zaa.2008.56.3.283>]
- Haugen, E. (1987): *Blessings of Babel. Bilingualism and Language Planning: Problems and Pleasures*. Contributions to the Sociology of Language 46. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Levi, J. (1973): «Where do all those other adjectives come from?», *Papers from the Regional Meetings of the Chicago Linguistic Society* 9, 332-345.
- (1978): *The Syntax and Semantics of Complex Nominals*, New York, San Francisco, Academic Press.
- Loinaz, M. (1995): «Adjektibo erreferentzialen erabilera», *Berba* 16.
- Mitxelena, K. (1968): «Ortografia», *Euskera XIII*, 203-219 [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&Itemid=424&lang=eu&arauaid=0]
- Picallo, C. (2002): «L'adjectiu i el sintagma adjectival». In Solà, J., Lloret, M.R., Mascaró, J. and Pérez Saldanya, M. (arg), *Gramàtica del català contemporani*, vol. 2: *Sintaxi*, Barcelona, Empúries, 1641-1688.
- Rainer, F. (1999): «La derivación adjetival» in Real Academia Española (arg.), *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, Madrid, Espasa, 4595-4682.
- (2013): Can relational adjectives really express any relation? An onomasiological perspective, In *SKASE Journal of Theoretical Linguistics* [online]. 2013, vol. 10, no. 1. [Available on web page <http://www.skase.sk/Volumes/JTL22/pdf_doc/02.pdf>]. ISSN 1339-782X SKASE
- Real Academia Española (2001): *Diccionario de la Lengua Española*, Madrid, Espasa.
- (2009): *Nueva Gramática de la Lengua Española. Morfología y Sintaxis*, Madrid, Espasa.
- Rodríguez Pedreira, N. (2000): *Adjectifs qualificatifs et adjectifs relationnels: étude sémantique et approche pragmatique*, doktore-tesia, Universidad de Santiago de Compostela.
- Zabala, I. (1997): «Argumentu-harremana / eremu-harremana: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila», *Nazioarteko-Terminologia Biltzarra*, UZEI-IVAP, 535-556.
- (2013): «Zentral nuklearretik komunitate mikrobiarretara», *31 eskutik* [<https://31eskutik.com/2013/06/01/zentral-nuklearretatik-komunitate-mikrobiarretara/>]